

# PROBA ESPEZIFIKOA

2011ko PROBA

**HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Probaren iraupena: ordubete

**TESTU-IRUZKINA.** (4 puntu).

“Hitzaurrea.

Itunkide gorenek, kontuan hartuta nazioen arteko lankidetzaz sustatzeko eta haien bakea nahiz segurtasuna bermatzeko garrantzitsua dela gerrara ez jotzeko zenbait konpromiso hartzea, nazioarteko harreman garbiak —justizian eta ohorean oinarrituak— mantentzea, Nazioarteko Zuzenbidearen aginduak —hemendik aurrera gobernuen benetako jokabidearen arautzat ezagutuak— zorrozki betetzea, justizia nagusiaraztea eta herri antolatuen arteko harremanetan itunen betebeharrak guztiak zehazki errespetatzea, Nazioen Elkartearen ezartzen duen Itun hau onartzen dute.

10. artikulua:

Elkartekideek konpromisoa hartzen dute Elkarteko kide guztien lurralde-osotasuna eta oraingo independentzia politikoa errespetatzeko eta kanpo-erako guztietatik babestuta mantentzeko. Erasorik, mehatxurik edota arriskurik badago, Kontseiluak zehaztuko du zer bitarteko behar diren betebeharrak hori bermatzeko. (...).

16. artikulua:

1. Elkartekideren batek gerrara jotzen badu (...), Elkarteko gainerako kide guztien kontra gerra-ekintza bat egin izan balu bezala hartuko da *ipso facto*. Elkartekideek konpromisoa hartzen dute haren merkataritza- edo finantza-harreman oro berehala apurtzeko, beren herritarrei Ituna hautsi duen estatuko herritarrekiko harreman oro debekatzeko eta estatu hartako herritarren eta Elkarteko kide den edo ez den beste edozein estatutako arteko merkataritza-arloko, finantza-arloko edo pertsonen arteko komunikazio oro bertan behera utzarazteko.

2. Kasu horretan, Kontseiluak gobernu interesdunei gomendatu beharko die zer baliabide militarrekin eta zer ontzi- eta aire-baliabiderek lagundu behar diren Elkarteko kide bakoitzak Elkartearen konpromisoak errespetarazi behar dituzten indar armatuak (...).

4. Elkartearen konpromisoren bat hautsi duen kide oro utzi ahal izango da Elkartetik kanpo. Kanporatzea Kontseiluan ordezkariak duten Elkarteko gainerako kideen botoez erabakiko da (...).”

*Nazioen Elkartearen Ituna.*

**GALDERAK**


1. Koka ezazu testuaren edukia dagokion testuinguru historikoan (2 puntu), eta egin ezazu testuan aipatzen diren puntuak esanahiari buruzko hausnarketa (2 puntu).



**2. Ordenatu itzazu kronologikoki gertakari hauek. (1 puntu).**

- Rooseveltek *New Deal*-a antolatu zuen.
- Golkoko Lehen Gerra.
- Porrot egin zuen Hitlerren Municheko *putsch*-ak.
- New Yorkeko dorre bikien aurkako atentatua.
- Bangladesh Pakistandik bereizi zen.
- Malvinetako Gerra Erresuma Batuen eta Argentinaren artean.
- Japoniak Txina inbaditu zuen.
- Mao Zedong hil zen.
- SESB desegin zen, eta Estatu Burujabeen Erkidegoa sortu zen.
- Kennedy presidentea hil zuten.

**3. Egin ezazu mapa honen iruzkin laburra. (2 puntu).**



**4. Defini itzazu, labor, termino hauek. Zerrendako seietatik hiru hautatu behar dituzu. (Ariketa osoa: 3 puntu / 1 puntu definizio bakoitzeko).**

- a) Tximista-gerra.
- b) Gerra Hotza.
- c) Commonwealth.
- d) Apartheida.
- e) Protektoratua.
- f) Armistizioa.



**EBAZPENA: HISTORIA OROKORRA  
(2011ko maiatza)**

Probaren iraupena: ordubete

**TESTU-IRUZKINA.** (4 puntu).

“Hitzaurrea.

Itunkide gorenek, kontuan hartuta nazioen arteko lankidetzaz sustatzeko eta haien bakea nahiz segurtasuna bermatzeko garrantzitsua dela gerrara ez jotzeko zenbait konpromiso hartzea, nazioarteko harreman garbiak —justizian eta ohorean oinarrituak— mantentzea, Nazioarteko Zuzenbidearen aginduak—hemendik aurrera gobernuen benetako jokabidearen arautzat ezagutuak— zorrozki betetzea, justizia nagusiaraztea eta herri antolatuen arteko harremanetan itunen betebeharrak guztiak zehazki errespetatzea, Nazioen Elkartearen ezartzen duen Itun hau onartzen dute.

10. artikulua:

Elkartekideek konpromisoa hartzen dute Elkarteko kide guztien lurralde-osotasuna eta oraingo independentzia politikoa errespetatzeko eta kanpo-eraso guztietatik babestuta mantentzeko. Eratorik, mehatxurik edota arriskurik badago, Kontseiluak zehaztuko du zer bitarteko behar diren betebeharrak hori bermatzeko. (...).

16. artikulua:

1. Elkartekideren batek gerrara jotzen badu (...), Elkarteko gainerako kide guztien kontra gerra-ekintza bat egin izan balu bezala hartuko da ipso facto. Elkartekideek konpromisoa hartzen dute haren merkataritza- edo finantza-harreman oro berehala apurtzeko, beren herritarrei Ituna hautsi duen estatuko herritarrekiko harreman oro debekatzeko eta estatu hartako herritarren eta Elkarteko kide den edo ez den beste edozein estatutako arteko merkataritza-arloko, finantza-arloko edo pertsonen arteko komunikazio oro bertan behera utzarazteko.

2. Kasu horretan, Kontseiluak gobernu interesduneri gomendatu beharko die zer baliabide militarrekin eta zer ontzi- eta aire-baliabiderekin lagundu behar dion Elkarteko kide bakoitzak Elkartearen konpromisoak errespetarazi behar dituzten indar armatuei (...).

4. Elkartearen konpromisoren bat hautsi duen kide oro utzi ahal izango da Elkartetik kanpo. Kanporatzea Kontseiluan ordezkaritza duten Elkarteko gainerako kideen botoez erabakiko da (...).”

*Nazioen Elkartearen Ituna.*



## **GALDERAK**

**1. Koka ezazu testuaren edukia dagokion testuinguru historikoan (2 puntu), eta egin ezazu testuan aipatzen diren puntuen esanahiari buruzko hausnarketa (2 puntu).**

## **ERANTZUNA**

Europako hiru inperio handietatik —Errusia, Alemania, Austria-Hungaria— bat ere ez zen onik atera gerratik. I. Mundu Gerrak nazioarteko ordenaren inoizko eraldaketa handienetako bat eragin zuen.

Nazioen Elkarteak sortu zen zenbait estatu Lehen Mundu Gerrak eragindako izugarrikeriez ohartu zirenean: milioika hildako, elbarriak, populazio zibila lekualdatua, pobrezia, gerra-zorrak, lau inperioren erorialdia —alemana, austro-hungariarra, errusiarra eta otomandarra— eta, aldi berean, horrek eragindako ezegonkortasun politikoa. Nazioen Elkarteak eragotzi nahi zuen gerra eragin zuten gertakariak errepikatzea, hala nola lankidetzaren falta, estatuen artean ezkutuko itunak egitea edo nazioarteko itunei kasurik ez egitea. Horregatik, erakunde bat sortu nahi izan zuten, zeinaren bidez estatuak bitarteko baketsuak erabiliz konpondu ahal izango baitzituzten beren gatazkak bitarteko militarrek erabili ordez, eta, hala, gerra eragin zuten arazoak saihestu:

Nazioen Elkartearen Itunaren arazoien azalpenean bertan hau aldarrikatzen da:

*“Itunkide gorenek, kontuan hartuta nazioen arteko lankidetzaren sustatzeko eta haien bakea nahiz segurtasuna bermatzeko garrantzitsua dela gerrara ez jotzeko zenbait konpromiso hartzea, nazioarteko harreman garbiak —justizian eta ohorean oinarrituak— mantentzea, Nazioarteko Zuzenbidearen aginduak— hemendik aurrera gobernuen benetako jokabidearen arautzat ezagutuak— zorrozki betetzea, justizia nagusiaraztea eta herri antolatuen arteko harremanetan itunen betebeharrak guztiak zehazki errespetatzea, Nazioen Elkartearen ezartzen duen Itun hau onartzen dute”.*

Parisko Bake Konferentzian, negoziazioetan, Nazioen Elkartearen sorrera sartu zen Versaillesko Itunaren I. atalean. Wilson presidente estatubatuarren programako 14 puntuetako batek proposatzen zuen biltzar bat sortzea, zeinetan munduko estatu guztiek parte hartu ahal izango baitzuten.

Idea horrek bultzatuta, Nazioen Elkarteak sortu zen 1919ko Parisko Konferentzian. Besteak beste, nazioarteko bakea eta kontzertua bermatzea zuen helburu, bai eta lankidetzaren eta garapen sozial eta kulturalaren bultzatzea ere.



Wilsonen programak proposamen hauek biltzen zituen: bake-hitzarmenak agerian negoziatzea eta diplomazia partikular eta sekretuak baztertzea; itsasoetan nabigatzeko askatasun osoa; hesi ekonomikoak ezabatzea eta bakearen alde jarduten duten estatu guztietarako merkataritza-kondizio berdinak ezartzea; armamentua bermearekin murriztea; arazo kolonialei buruzko akordioak gauzatzea, populazio autoktonoen eskubideak eta metropolien interesak errespetatuz; okupatutako lurralde errusiar guztiak ebakutzeari; Belgika ebakutu eta berrezartzea; Frantziari Alsazia eta Lorrena itzultzea; Italiako mugak egokitzea; Austria-Hungariako herrien garapen autonomorako berehalako bermea; Errumania, Serbia eta Montenegro ebakutzeari; existitzeko berme osoa Otomandar Inperioaren mendeko eskualde ez-turkiarrentzat; Polonia independentea sortzea; nazioarteko ordena arautzeko estatu elkarte orokor bat sortzea.

Itunaren eranskineko 32 kideak eta parte hartzera gonbidatutako 113 estatuak ziren jatorrizko herrialde sortzaileak, eta geroan munduko gainerako herrialdeak sartzeko irekita geratu zen. Alemania, Turkia eta SESB izan ziren salbuespenak. Erresuma Batuaren kasuan, haren mendeko lurraldeak eta koloniak ere, hala nola India, Hegoafrika, Australia eta Zeelanda Berria, sartzeari onartu zen.

1920ko eta 1930eko hamarkadetan, Nazioen Elkarteak etengabe handituz joan zen, beste estatu batzuek Elkarteari bat egin baitzuten. Herrialde hauek sartu ziren gerora: Austria 1920an, Alemania —Locarno Itunaren bidez— 1925eko urrian (horri esker, kide gisa sartu zen 1926ko irailean), Turkia 1934an eta Sobietar Batasuna 1934an. AEB ez zen sekula sartu Elkartean, Estatu Batuetako Kongresuak ez baitzuen onartu Elkartean parte hartzea; nolahi ere, hari elkartutako erakundeetan parte hartu zuen.

Nazioen Elkarteak hiru organismo zituen, Versaillesko Itunaren arabera:

- Biltzarra: Nazioen Elkartearen estatu kideek osatua. Urtero irailean elkartzen zen Genevan, Suitzan. Estatu bakoitzak boto bat zuen. Ebazpenak eta gomendioak proposatzeko eta aho batez bozkatzeko ardura zuen, baita Kontseiluko kide ez-iraunkorrek hautatzeko ere. Biltzarraren botoen bi heren behar ziren herrialde berriak onartzeko. Gainera, Elkarteari aurrekontua, Kontseiluaren lana, eta Idazkaritzarena, antolakuntza teknikoarena eta aholku-batzordea onartu behar zituen. Nazioarteko Justizia Auzitegi Iraunkorreko epaileen hautaketan parte hartzen zuen.
- Kontseilua: hasieran, bost kide iraunkorrez osatua zegoen: Frantzia, Italia, Japonia, Erresuma Batua eta Estatu Batuak (AEBren lekua hutsik utzi zen, gerora sartuko balitz). Lau kide ez-iraunkor ere bazituen Kontseiluak, Biltzarrak hautatuak eta hiru urtean behin herenka berritzen zirenak. 1926an, Alemania sartu zenean, Estatu Batuen postua esleitu zitzaion. Estatutuak 1934an berriro ziren; 6 kide iraunkorrez —eserleku horietako bat SESBi esleitu zitzaion, orduan sartu baitzen— eta Biltzarrak



hautatutako 11 kide ez-iraunkorrez osatuko zen handik aurrera. Kontseiluaren saioak urtean hirutan egiten ziren, eta saio bereziak egiten ziren beharrezkoa zenean. Aho batez hartzen ziren erabakiak, prozeduragaitan izan ezik. Ikerketa- eta adiskidetze-batzorde gisa jarduten zuen Kontseiluak, aurkezten zitzaion edozein gatazkatan. Elkartea osatzen ez zuten herrialdeek beren interesei eragiten zien edozein gai aurkeztu zezaketen Kontseiluan zuzenean.

- Idazkaritza: Biltzarraren eta Kontseiluaren saioak prestatzen zituen eta txostenak eta dokumentuak egiten zituen organismo iraunkorra. Aholku-batzordeen eta Danzig Hiri librearen goi-komisarioaren ardura zuen.

Nazioarteko erakunde hauek elkartu edo atxiki zitzaizkion Nazioen Elkarteari:

- Nazioarteko Lan Erakundea (1920)
- Nazioarteko Justizia Epaitegi Iraunkorra (1922)

Nazioen Elkarteak hainbat arazo izan zituen hasiera-hasieratik. Lehenbizi, AEBko Senatuak uko egin zion Ituna onartzeari, eta, hala, AEBko gobernuak Nazioen Elkartetik kanpo utzi zuen bere burua. Bigarrenik, Alemania eta Turkia baztertuak izan ziren, Lehen Mundu Gerra galdu zuten herrialdeak baitziren, eta, gainera, ofizialki egotzi baitzitzaion Alemaniari gatazka hura sortu izanaren erantzule bakarra izatea. Sobietar Batasuna ere baztertua izan zen, erregimen komunista baitzuen (iraultza boltxebikearen hedapena eragozteko, estatu antikomunisten babes-hesi bat sortzea eragin zuen horrek) eta Lehen Mundu Gerraren irabazleen Moskuko gobernuarekiko ezagutze diplomatikoa berandu etorri baitzen (1930 baino lehentxeago ezagutu zuten Moskuko gobernuak). Unerik onenean ere Nazioen Elkarteak ez zuen lortu berrogeita hamar kide baino gehiago izatea.

Segurtasun kolektiboko eta desarmeko mundu-politika bat sustatzea zen ekintza nagusien helburua. Genevako Protokoloaren bidez (nazioarteko gatazkek era baketsuan konpontzeko protokoloa, 1924) egindako erreformak eragin zuen gatazketan arbitrajea nahitaezkoa izatea. Gatazkaren aldeetako batek arbitrajea ukatuz gero, alde hori erasotzailea zela onartzea zen. Horretarako, automatikoki aplikatu ahal izango ziren zigor militarrek. Nazioen Elkartearen Itunak bazuen beste berrikuntza bat: estatu kideek nahitaez argitaratu behar zituzten beren itunak, eta Nazioen Elkartean erregistratu.

Versaillesko Itunak Nazioen Elkarteari zenbait lurralderen zuzeneko administrazioa eman zion aldi baterako. Lurraldeok bi administrazio modutan banatuta zeuden: Idazkaritzak administratuak eta Mandatuen Batzorde Iraunkorrak gainbegiratuak.

1923an, agerian geratu zen erakundearen ahultasuna, Frantziak Renaniako alemaniar eskualdea inbaditu zuenean gerrako ordain gisa eskuratzeko;



Elkarteak ezin izan zuen gertakari hori saihestu edota errefusatu, nahiz eta ofizialki debekatua zegoen gerra-zorrak kobratzea halako okupazio militarren bidez.

Japoniak, bestalde, Mantxuria inbaditu zuen 1931n, eta hori izan zen Nazioen Elkartearen bigarren arazo nagusia. Erasoagatik zigortuta, Japoniak erakundea utzi zuen 1933an, baina ez zuen inolako zigor eraginkorrik izan Nazioen Elkarteko kideen eskutik, eta ez zion itzuli Txinari Mantxuriako lurraldea. Alemania *estatu bakezale* gisa onartu zuten Nazioen Elkartean 1926an, baina erregimen naziak Japoniaren bide bera hartu zuen 1933an, eta Nazioen Elkartea utzi zuen.

Nazioen Elkarteak ez zuen sekula lortu nahikoa aginpide kideak beraren ebazpenak betetzera derrigortzeko. Gauza bera gertatu zen 1934an, *Biltzar Nagusiak* Chacoko Gerrari buruzko ebazpena ezarri zuenean —gerra 1932-1935 bitartean izan zen, eta Paraguaiko Errepublikak eta Boliviako Errepublikak parte hartu zuten—. Biltzar Nagusiaren behin betiko erabakiak arrazoa eman zion Boliviari, baina Paraguaiko Errepublikak aurre egin zion erakunde horren aginpideari, eta Nazioen Elkartea utzi zuen; azkenean, garaile irten zen gatazka hartan.

Italiak Abisinia inbaditu zuen 1935ean, eta, hala, agerian geratu zen Nazioen Elkarteak ez zuela aginpide eraginkorrik estatuen arteko erasoen kontrako nazioarteko ekintza bat bideratzeko eta ez zuela batere indarrik munduko bakearen gutxieneko errespetua bermatzeko. 1935ean Italia faxistaren aurkako zigorrak onartu baziren ere, herrialde askok ez zuten horrekin bat egin, eta zigorrek ez zioten eragozten Italiari bere kanpaina militarreko behar zituen lehengaiak lortzea. Azkenik, Nazioen Elkartearen kide nagusiek (Frantziak eta Britainia Handiak) uko egin zioten zigor gogorragoak ezartzeari, Mussolinik Italia Nazioen Elkartetik ateratzea eta Hitlerrekin aliatzea saihestu nahian (alferrik, ordea).

Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, 1939ko irailean, gertatu zen Nazioen Elkartearen azken porrota, Elkartea sortu zenean saihestu nahi zen gertakari nagusia jazo baitzen: eskala handiko beste gerra bat Europan. Nazioen Elkartearen azken ekitaldi nagusi ofizialean, SESB bota zuten Elkartetik, armada sobietarrak Finlandia inbaditu zuenean 1939ko abenduan.

Zenbait *lankidetzeta-programa* ekonomiko eta humanitario garatzea izan zen Elkartearen arrakasta handiena.

Nazioen Elkartea ez zen oso eraginkorra izan, zenbait arrazoiengatik:

- Gaien inguruan erabakitzeko gaitasun mugatua zuen, akordioak aho batez lortu behar baitziren.
- Ez zuen bitarteko eraginkorrik erabakiak betearazteko.





- Elkarteak osatu zuten potentziek inplikazio txikia izan zuten.

Nazioen Elkarteak errefuxiatuei laguntzeko eta lan-erregulazioko zerbitzu gutxi batzuei baino ez zien eutsi Bigarren Mundu Gerran; horretarako, Suitza neutralean zuen egoitza erabiltzen jarraitu zuen, eta erakundearen azken *idazkari nagusia* Seán Lester irlandarra izan zen, ehun bat laguntzaileko taldearekin. Nazioen Elkartea 1946an deuseztatu zen ofizialki, baina azken Biltzarra gerra amaitutakoan egin zuten, 1946ko apirilaren 8tik 18ra bitartean; erakundea 1947ko uztailaren 17an deuseztatu zen legalki, eta, horren ondorioz, NBE sortu berrira eraman ziren erakundearen artxibo eta ondasun guztiak.

## 2. Ordena itzazu kronologikoki gertakari hauek. (1 puntu).

- Rooseveltek *New Deal*-a antolatu zuen.
- Golkoko Lehen Gerra.
- Porrot egin zuen Hitlerren Municheko *putsch*-ak.
- New Yorkeko dorre bikien aurkako atentatua.
- Bangladesh Pakistandik bereizi zen.
- Malvinetako Gerra Erresuma Batuaren eta Argentinaren artean.
- Japoniak Txina inbaditu zuen.
- Mao Zedong hil zen.
- SESB desegin zen, eta Estatu Burujabeen Erkidegoa sortu zen.
- Kennedy presidentea hil zuten.

## ERANTZUNA

1923 Porrot egin zuen Hitlerren Municheko *putsch*-ak.

1932 Rooseveltek *New Deal*-a antolatu zuen.

1933 Japoniak Txina inbaditu zuen.

1963 Kennedy presidentea hil zuten.

1971 Bangladesh Pakistandik bereizi zen.

1976 Mao Zedong hil zen.

1982 Malvinetako Gerra Erresuma Batuaren eta Argentinaren artean.


1990 Golkoko Lehen Gerra.



1991 SESB desegin zen, eta Estatu Burujabeen Erkidegoa sortu zen.

2001 New Yorkeko dorre bikien aurkako atentatua.

**3. Egin ezazu mapa honen iruzkin laburra. (2 puntu).**



**ERANTZUNA**

Mapak Txekoslovakiaren zatiketa adierazten du. Duela hamabost urte utzi zion Txekoslovakiako Errepublikak existitzeari. Estatu berean 74 urtean baino gehiagoan elkarrekin bizi ondoren, txekiar eta eslovakiar herrialdeek bi estatu independentetan bereiztea erabaki zuten.

1980ko hamarkadaren amaieran, Sobietar Batasunean Gorbaxovek izan zuen irekitasunaren aldeko politikak adoretuta, eta batez ere Alemaniako Errepublika Demokratikoan gertatu ziren aldaketek adoretuta, gero eta herritar gehiagok hartu zuten parte ikasleek antolatutako protesta-ekintzetan. 1989ko azaroaren 17an, bideo bat zabaldu zen jendartearen, armadak ikasleek manifestazio baten aurka izan zuen oldarraldi bortitza erakusten zuena; horrek manifestazio handiak eragin zituen hurrengo hilean, eta gobernu komunistaren dimisioa izan zuten ondorio. Pixkanaka, herritar gehienak hasi ziren adierazten agintari komunisten aurka zeudela. Herritar Foroa erakunde berriaren eta Publikoa Biolentziaren Aurka haren adar eslovakiarraren buruzagiek, Václav Havel buru, telebistako eztabaidetan negoziatu zuten gobernuarekin. Manifestazioak hasi eta hogeita hiru egunera, gobernu komunistak dimititu egin zuen, oraingoan bere aliatu sobietarrek abandonatu egin baitzuten.

Václav Havel Errepublikako presidente izendatu zuten 1989ko abenduaren 29an. Nazioarteko hedabideek Belusaren Iraultza deitu zutenaren garaipena izan zen. Herrialdeko buruzagi berriek demokratizazio-prozesuari ekin zioten: merkatu-ekonomia sartu zuten, eta Europar sartu ziren. Askatasuna berreskuratu zuten hedabideek, eta beste askatasun politiko batzuk ere



berrezarri ziren; zenbait lege onartu ziren sistema juridikotik komunismoaren aztarnak kentzeko, jabetza pribatua legeztatzeko eta erregimen komunistaren biktimei kalte-ordaina emateko. 1990eko ekainean, hauteskunde libreak izan ziren.

Herrialdeko buruzagi berriek birbideratu egin zuten Txekoslovakiako kanpo-politika ere; harreman onak ezarri zituzten AEBekin eta mendebaldeko herrialde mugakideekin, eta mendebaldeko instituzioetan, hala nola EBn eta NATOn, sartzeko interesa adierazi zuten.

Hala ere, txekiar eta eslovakiar buruzagiak ez ziren ados jartzen gobernu federalen eta Errepublikako gobernu zentralaren arteko botere-banaketari buruz. Vladimir Meciar eslovakiar buruzagi nazionalistak Eslovakia independente baten alde egin zuen kanpainak konstituzio berri bat sortzea eragotzi zuen, eta erreforma ekonomikoak zaildu egin zituen. Tentsio horiek agerian uzten zuten erreforma ekonomikoak zailtasun handiagoak eragiten zituela Eslovakian, han baitzeuden eraginkortasunik txikiena zuten herrialdeko industria gehienak. Iritzi publikoaren inkestek adierazi zuten eslovakiar gehienek, Vladimir Meciarren eraginpean, bere herrialdearen independentzia nahi zutela.

Txekiarren eta eslovakiarren arteko aldeak 1992ko ekaineko parlamenturako hauteskundeetan izan zuten gorenaldia. Zentro-eskuinak, Václav Klausen Herritar Alderdi Demokratik, irabazi zuen txekiarren aldean; Vladimir Meciarren Eslovakia Demokratikorako Mugimendu antimonetarista eta oso nazionalistak lortu zuen boto-ehuneko handiagoa eremu eslovakiarrean. Txekiarren eta eslovakiarren buruzagiek, beraz, berehala negoziatu zuten Txekoslovakiako Errepublikaren amaiera. Eslovakiak 1992ko ekainean aldarrikatu zuen burujabetasuna, eta, hala, Václav Havel dimititu egin zuen estatu federatuaren presidentetzatik.

1993ko urtarrilean, txekoslovakiar federazioa desegin egin zen, eta bi estatu independente berri sortu ziren: Txekiar Errepublika eta Eslovakiar Errepublika. Artean, bi herrialdeek oso lotura estuak zituzten, batez ere merkataritza-harremanetan. Baina haien garapen politiko eta ekonomikoak bata bestetik bereiziz joan ziren. Václav Havel Txekiar Errepublikaren presidente hautatu zuten 1993ko otsailean.

**4. Defini itzazu, labur, termino hauek. Zerrendako seietatik hiru hautatu behar dituzu. (Ariketa osoa: 3 puntu / 1 puntu definizio bakoitzeko).**



- a) Tximista-gerra.
- b) Gerra Hotza.
- c) Commonwealth.
- d) Apartheida.
- e) Protektoratua.
- f) Armistizioa.

## ERANTZUNA

- a) Tximista-gerra

*Blitzkrieg* delakoa eraso militar mota bat da, inguruaren bonbardaketa masibo batekin hasten dena; ondoren, indar korazatuak azkar eta sakon sartzen dira, fronte estu batean, eta hegazkinen ekinak aurrez ahuldutako lurraldea okupatzen dute. Armada alemanak erabili zuen Bigarren Mundu Gerran.

Teknologia modernoari lotutako kontzeptu horien lehen erabilera praktikoak *Wehrmacht*-ek finkatu zituen Bigarren Mundu Gerraren hasierako batailetan. Poloniako operazioak nahiko konbentzionalak izan ziren, baina ondorengoak (bereziki, Frantzia nahiz Herbehereak okupatzea eta Sobietar Batasuneko lehenengo operazioak) eraginkorrak gertatu ziren ustekabeko inbasioak, etsaiaren prestakuntza orokor eskasa eta alemanen erasoei azkar erantzuteko ezintasuna zirela eta.

- b) Gerra Hotza

Estatu Batuak buru zuen mendebaldeko bloke kapitalistaren eta SESB buru zuen ekialdeko bloke komunistaren artean XX. mendean izan zen aurrez aurrekoari esaten zaio Gerra Hotza. 1945ean hasi zen (Bigarren Mundu Gerraren amaiera) eta komunismoa erori arte iraun zuen (1989 —Berlingo Harresiaren erortzea— eta 1991 —estatu-kolpea SESBn— artean).

Aurrez aurrekoa politikan, ideologian, ekonomian, teknologian, arlo militarrean eta informazioaren arloan gertatu zen.

Blokeek ez zuten inoiz elkarren kontra zuzenean jo; horregatik deitu zitzaion gatazkari “gerra hotza”. Bi potentziak nazioarteko testuinguruan “botere-ardatz” gisa eragitera mugatu ziren, eta herrialde aliatuak edo sateliteak ekonomikoki eta militarki laguntzera, beste blokearen kontra egiteko. Aurrez aurreko horiek mundu-gerrarik abiarazi ez zuten arren, gatazka ekonomikoen, politikoen eta ideologikoen neurriak eta larritasunak eragin nabarmena izan zuten XX. mendearen bigarren erdiaren historiaren zati handi batean. Bi superpotentziek beren gobernu-eredua ezarri nahi zuten planeta osoan.



Gatazkaren mugak hauek dira: hasiera 1945 eta 1947 artean (Bigarren Mundu Gerraren amaiera eta gerraostearen amaiera, hurrenez hurren), eta bukaera 1985 (Perestroikaren hasiera) eta 1991 artean (Sobietar Batasuna desagitea).

#### c) Commonwealth

Nazioen erkidego britainiarra. Britainiar kolonia eta agindupeko lurralde izan ziren eta orain independente diren lurraldeak biltzen ditu, eta elkarlan politiko, ekonomiko nahiz kulturalerako harremanak finkatzen ditu Erresuma Batuaren zaintzapean eta lidertzapean.

Erakundea 53 herrialde independentek osatzen dute; Erresuma Batuarekin harreman historikoak izan dituzte guztiek, Mozambikek izan ezik. Helburu nagusia arlo politikoan nahiz ekonomikoan nazioarteko elkarlana sustatzea da, eta, 1950az geroztik, erakundean sartzeak ez dakar berekin britainiar koroarekiko inolako men egiterik. Mozambike sartzearekin, erakundeak Nazioen Mankomunitate (*Commonwealth of Nations*) izena hobetsi du izaera internazionalista nabarmentzeko. Hala ere, maiz erabiltzen da oraindik *britainiar* adjektiboa nazioarteko bestelako mankomunitateetatik bereizteko. Erresuma Batuko Elisabet II.a erregina da erakundearen burua eta, mankomunitatearen printzipioen arabera, *“kideak libreki elkartu izanaren sinboloa”*.

#### d) Apartheida

Arraza-bereizkeriako politika, zeinaren arabera arraza batek, kasu honetan zuriak, jarduera sozial eta banako jarduera guztiak bereizita egitera behartzen baitu beste arraza, beltza. Horrek esan nahi du bat nagusitzen dela politikoki eta besteari eskubideak ukatzen zaizkiola.

Apartheida Hegoafrikan urte askoan egindako arrazismo-ekintza sorta bat izan zen, baina 1948 arte ez zuen forma juridikorik hartu; orduan, horretarako indarrean jarritako legeen babesa jaso zuen.

1950ean indarrean jarritako lege batek ezarri zuen hiriko zenbait gunetan zuriek bakarrik zutela jabe izateko aukera; hala, zuriak ez zirenak beste norabait emigratzera behartzen zituen. Legeek gune bereziak finkatu zituzten hondartzetan, autobusetan, ospitaleetan, ikastetxeetan eta baita parke publikoetako eserlekuetan ere. Beltzek eta koloreko gainerakoek, bestalde, nortasun-agiria eraman behar zuten uneoro, eta debekatua zuten zenbait hiritan baimenik gabe geratzea edo are sartzea ere.

#### e) Protektoratua

Protektoratu deritzo Estatu batek lurralde batean burujabetza partziala — nagusiki kanpo-harremani dagokiena— izateari, lurralde hori estatu haren erabat mendekoa ez denean eta agintaritza autoktonoa duenean.



Protektoratuan agintari politikoak mantentzen dira, baina metropoliak kontrolatzen du militarri eta politikoki.

Adibide moduan, Espainiak eta Frantziak garai batean Marokon ezarritako protektoratua aipa genezake, non tokiko biztanleekiko agintea sultanarena baitzen, eta bai baitziren tokiko indar militarrik eta polizialak, baina herrialde *babesleetako* armaden zaintzapean.

Herrialde horietako gobernuen ordezkaria, Espainiaren kontrolpeko eskualdean, goi-komisarioa zen, gehienetan jeneral bat zena, eta Frantziaren kontrolpeko lurraldean, jeneral egoiliarra.

#### f) Armistizioa

Gatazka militar batean borrokak behin-behinean etetea, alde biek hala erabakita. Militarri borrokan ari diren bi talderen (herrialderen, nazioen, fakzioen) arteko erasoak bertan behera uztea da armistizioa. Ez dakar, nahitaez, bake-hitzarmen bat sinatu beharra, borroka etetea besterik ez da.

Historian zehar, zenbait gerratan, garai berezietan sinatu izan dira armistizioak. Adibidez, armada kristauek ez zioten bata besteari erasotzen Eguberrietan.

Armistizioa de facto egoera bat da, eta ez da bake-hitzarmen baten parekoa. Adibidez, Koreako Gerrako 1953ko armistizioaren ondoren ez da bake-hitzarmenik izan. Historian zehar hainbat armistizio-ahalegin izan da, esaterako Frantziaren eta Alemaniaren artekoa (1940) Bigarren Mundu Gerran.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**HISTORIA OROKORRA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA GENERAL**

---

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO  
ERLAZIOA**

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA-ADIERAZLEA</b>
1	1.1; 1.3
2	1.1; 1.2; 3.1; 4.1; 5.1
3	4.3
4	1.1; 2.1; 3.1